



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

AZTERKETARIA

LEHEN DEITURA

BIGARREN DEITURA

IZENA

NAN

EGUNA: 2007ko ekainaren 4a



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kenduko.

1. “Hala ere, beste bi urtez iraun _____ .”
 - a) zituen / alkate
 - b) zuen / alkate
 - c) zuen / alkatetzat
 - d) zen / alkate

2. Euskara batuan, zein dago zuzen? “Besteren _____ komeni baino gehiago _____ gorrotatzen dituzte herrian”.
 - a) gauzetaz / arduratzeagatik
 - b) gauzetaz / arduratzeagaitik
 - c) gauzez / arduratzeagatik
 - d) gauzez / arduratzeagaitik

3. “Gaur irakasle berri bat etorri zaigu, lau hizkuntza _____ .”
 - a) dakienak
 - b) dakizkienak
 - c) dakizkiela
 - d) dakizkiena

4. Aukera ezazu **oker** dagoen esaldia.
 - a) Gabriel Langarika, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - b) Hezkuntza batzordeburu Gabriel Langarikak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - c) Gabriel Langarika Hezkuntza batzordeburuak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - d) Gabriel Langarikak, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.

5. “Mirenek bere buruaz beste egin _____ zurrumurrua zabaldu da.”
 - a) duen
 - b) duelaren
 - c) duelakoaren
 - d) duenaren



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

6. “Atzo, apirilak 16, aurkeztu zen Eskoriatzako Ibarraundi museoa, Leintz bailarako hizkera eta ahozko _____ biltzen duen proiektua.”
- altxorra
 - patrimonioa
 - multzoa
 - ondarea
7. Aukera ezazu esaldi zuzena:
- Arlo magnetikoaren zehar mugitzen da.
 - Arlo magnetikoan zehar mugitzen da.
 - Arlo magnetikoaren barrena mugitzen da.
 - Arlo magnetikotik barna mugitzen da.
8. “Atzo gustura aritu zen Reala aspaldiko partez, _____ sentrazioak berreskuratuta, nonbait.”
- behinolako
 - behin-behineko
 - behin betiko
 - behineneko
9. “Ahalegindu zara. _____ , ez duzu gauza handirik lortu.”
- Haatik
 - Orobat
 - Izan ere
 - Baino
10. Zein dago zuzen idatzia?
- kokodrilo, orkestra
 - krokodilo, orkestra
 - kokodrilo, orkesta
 - krokodilo, orkesta
11. Aukera ezazu hitz-bikote zuzena hutsuneak betetzeko: “Alaba bientzat ekarri zituen opariak: _____ liburuak eta _____ diskoak.”
- batentzat / besteentzat
 - batentzako / besteentzako
 - batarentzat / bestearentzat
 - batarentzat / besterentzat
12. Aukera ezazu esaldi zuzena:
- Atzo etorri ziren lagunak hautsi zuten ikasgelako atea.
 - Ikasgelako atea hautsi zutenak nire lagunak ziren.
 - Atzo etorri ziren ikasgelako atea hautsi zutenek.
 - Lagunek, zeinek ikasgelako atea hautsi baitzuten, atzo etorri ziren.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

13. Aukera ezazu esaldi zuzena:

- a) Liburua atzo erosi nuen. Koadernoak atzo ere erosi nuen.
- b) Liburua atzo erosi nuen. Koadernoak atzo erosi nuen ere.
- c) Liburua atzo erosi nuen. Koadernoak ere atzo erosi nuen.
- d) Liburua atzo erosi nuen. Koadernoak atzo erosi ere egin nuen.

14. Aukera ezazu egokiena maila jasoko testu baterako.

- a) Batzuek esaten dute hazienda lokal delako arazo nagusia dela zerga berriak ezartzeko eskumen falta eta, baita ere, aipatutako zerga horiek kudeatzeko behar den gaitasuna ez edukitzea.
- b) Zenbaiten ustez, toki ogasunen arazo nagusia zerga berriak ezartzeko gaitasun falta da eta, horrekin batera, zerga horiek kudeatzeko gaitasuna ez izatea.
- c) Zenbaiten ustez, udaletxeetako ogasunen arazorik behinena zerga berriak ezartzeko gaitasun falta da eta zerga horiek kudeatzeko gaitasunik ez izatea ere bai.
- d) Batzuek esaten dute toki ogasunen arazorik behinena zerga berriak ezartzeko gaitasun falta dela eta zerga horiek kudeatzeko gaitasunik ez dagoela.

15. Aukera ezazu esaldi zuzena:

- a) Hitzaldira joatera behartu diete.
- b) Jatetxe honetan oso ongi ematen dute jaten.
- c) Ez du merezi liburu hori irakurtzeak.
- d) Aspaldian ez naiz bizikletan ibili eta ahaztu zait ibiltzea.

16. Honako esaldi hauetako bat **oker** dago. Zein?

- a) Depresioak jota, Jon leihotik behera bota zen.
- b) Oraingoan, behintzat, daudela gauzak beren horretan!
- c) Nori burura dakioke horrelako bidegabekeria?
- d) Elkarri bostekoa eman diote; barkatu, ordea, ez.

17. Aukera ezazu esaldi zuzena:

- a) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen, errauste planta arbuiatuz eta erreferenduma egin dadin proposatuz.
- b) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen, errauste planta arbuiatu eta erreferenduma egin dadin proposatu zuelarik.
- c) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen, errauste planta arbuiatu eta erreferenduma egin dadin proposatzen.
- d) Hiri hondakinen gaia aztertzeke bildu zirenen arteko batek hitza hartu zuen, errauste planta arbuiatzeko eta erreferenduma egin dadin proposatzeko.

18. “Nola _____ zientzialariek gertaera horri?”

- a) irizten diete
- b) deitzen dute
- c) izendatzen diete
- d) deritzote



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

19. “Hogei igarkizun zeuden eta Iñigok lau asmatu zituen. Beraz, _____ asmatu zuen.”
- bosten
 - bostena
 - bostarena
 - bosterena
20. “Harria airera botatzen baduzu, alde egizu berehala harria buru gainera eror ez _____ .”
- diezazun
 - dakizun
 - zaizun
 - zaitzan
21. Zein dago zuzen idatzia?
- Bizikletaren neumatikoak puzkailu batekin bete ditugu.
 - Bizikletaren neumatikoak puzgailu batekin bete ditugu.
 - Bizikletaren pneumatikoak puzgailu batekin bete ditugu.
 - Bizikletaren pneumatikoak puzkailu batekin bete ditugu.
22. Zein dago zuzen idatzia?
- Umorea ere bazuen eta hitz-jario handikoa zen.
 - Humorea ere bazuen eta hitz jario handikoa zen.
 - Umorea ere bazuen eta hitzjario handikoa zen.
 - Humorea ere bazuen eta hizjario handikoa zen.
23. “Irten _____ aretotik azterketa bukatu dutenak!”
- dezatela
 - bedi
 - dadila
 - bitez
24. “Eserleku asko zegoenez, lehenik aulki batean jesarri zen eta gero _____ .”
- bestean
 - bestetan
 - beste batean
 - beste zenbaitean
25. Aukera ezazu esaldi zuzena:
- Teknologi berriak asko erabiltzen dira gaur egun.
 - Makila batez joko zaitut.
 - Katea batez lotu dugu txakurra.
 - Hizkuntz ugari jakitea aberastasuna da.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

26. Honako esaldi hauetatik zein da egokia?
- Errealak gol berri bat sartu du atsedena baino lehen.
 - Gasteizek hazkunde itzela ezagutu du azken urteotan.
 - Nagusiarekin zituen zor guztiak kitatu ditu.
 - Azterketa hori berriro egiteko aukera luzatu digute.

27. Euskara batuan, zein da zuzena?
- Esan dukana berriz esaten baduk, inguruko guztiak uxatuko dituk.
 - Etorri ez direnek ez dute hitzik hemen. Etortzea zuten.
 - Gehiegikeriren batean erori banaiz, ustekabea izan dala uste dut.
 - Hau lehengo eskema da, bakarrik gaurkotuta dagola.

28. “Liburu hau _____ beste guztiak irakurri ditut.”
- ez, baino
 - ez ezik,
 - baita
 - izan ezik,

29. “Behaztopa egin eta ezkerreko belaunean _____ .”
- min handia eman du
 - min handia hartu du
 - min asko hartu du
 - min asko egin du

30. “Zuk ekarri ezean, gosaria Mirenek ekar _____ .”
- diezaizuke
 - lizuke
 - ziezazuken
 - liezazuke

31. Lexikoari dagokionez, zein da zuzena?
- Ezagutzen ditut ume horren aitak.
 - Guda urrun hartako hildakoen zenbakiak ikaratu gaitu.
 - Kantariak irrintzika sartu ziren plazan.
 - Belarriko min asko daukat.

32. “Esandako _____ ondo deritzogu.”
- guztia
 - guztiari
 - guztiak
 - guztiengatik



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

33. Zein dago zuzen idatzia?

- a) maiestade
- b) maiestate
- c) majestade
- d) majestate

34. Zein dago zuzen euskara batuan?

- a) Hilak 5ean bukatzen da lanak aurkezteko epea.
- b) Abuztuaren 20ean betetzen ditut urteak.
- c) Hilak 31 izaten da kobratzeko eguna.
- d) Bihar, maiatzak 1, langileen eguna da.

35. “Beti gezurretan eta azpijokoan ibiltzen _____ al zara zu ere?”

- a) direnetakoa
- b) denekoa
- c) denetakoa
- d) zarenetakoa

36. “Nik ez dut zuk _____ kemenik”.

- a) adina
- b) bestelako
- c) horrenbesteko
- d) adinako

37. “Irakasleak ez omen ziren aski udalekuko haur guztiei kasu egiteko eta _____ jarri zituzten haiei laguntzeko.”

- a) begiratzailleak
- b) ikuskatzailleak
- c) begiraleak
- d) ikuskariak

38. “Aldaketa klimatikoa dela eta, zientzialariak sakon aztertzen ari dira zer paper joka dezaketen energia iturri _____ .”

- a) berrituek
- b) berriztagarriek
- c) berritzaileek
- d) berrigarriek

39. “Gaur ez dut egunkaririk ekarri”. Aukera ezazu jarraipen egokiena.

- a) Utz zeniezadake zurea pixka batean?
- b) Uzten didazu zurea pixka batean?
- c) Utziko bazenida zeurea pixka batean?
- d) Utziko didazu zurea pixka batean?



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

40. “Badakit asteburuan Donostian izan zinela. Eta Josu?”
- Josu ere bai etorri zen.
 - Josu ere etorri zen.
 - Josu etorri zen ere.
 - Baita Josu ere etorri zen.
41. Ondoko sigletatik, zein dagokio gaixotasun bati?
- IHES
 - HIEZ
 - HIES
 - IHEZ
42. “Zure aldean zaharra da zure lehengusua.” Zer esan nahi du esaldi horrek?
- Zure lehengusua zaharra da, zure ustez.
 - Zure lehengusua bezain zaharra zara zu.
 - Lehengusua baino gazteagoa zara zu.
 - Lehengusua bezain zaharra zarela uste duzu.
43. Zein dago **oker** euskara batuan?
- Hiru hilabeterik behin izaten ditugu azterketak.
 - Hiru hilabetero izaten ditugu azterketak.
 - Hiru hilabete behin izaten ditugu azterketak.
 - Hiru hilabetetik hiru hilabetera izaten ditugu azterketak.
44. Zein dago **oker** euskara batuan?
- Itxarongo zaitut.
 - Deituko dizut.
 - Deituko zaitut.
 - Lagunduko dizut.
45. Nola deritzo langile-multzoari?
- Langilegoa.
 - Langintza.
 - Langileria.
 - Langarria.
46. “Zalantzarik ez dago horretan: arranoaren hegada _____ baino askoz ere dotoreagoa da.”
- satorrarena
 - erbiarena
 - satitsuarena
 - saiarena



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

47. Nola idazten da zuzen 25.309 zenbakia?

- a) Hogeita bost mila hirurehun eta bederatzia.
- b) Hogeita eta bost mila hirurehun eta bederatzia.
- c) Hogeita bost mila hirurehun eta bederatzia.
- d) Hogeita bost mila hirurehun bederatzia.

48. Zein dago zuzen idatzia?

- a) Oroitzapenak beti dira memoriak egiten dituen proiektzio batzuk. Batzuetan, atseginak; bestetuetan, mingarriak.
- b) Oroitzapenak, beti dira memoriak egiten dituen proiektzio batzuk. Batzuetan, atseginak, bestetuetan, mingarriak.
- c) Oroitzapenak beti dira memoriak egiten dituen proiektzio batzuk: batzuetan, atseginak, bestetuetan, mingarriak.
- d) Oroitzapenak beti dira memoriak egiten dituen proiektzio batzuk, batzuetan, atseginak; bestetuetan, mingarriak.

49. Aukera ezazu esaldi zuzena:

- a) Musika itzali eta elkarrekin hitz egiten ez badugu, zertan bihurtuko gara?
- b) Elkarte hori jatorri eta iritzi askoko lagunak osatzen dute.
- c) Zorionez, istripu hartan ez ziren hildakorik egon.
- d) Telebistak amaitu du XX. mendearen zehar zabaldutako familia ohiturekin.

50. “Tesia ekainerako amaituko dudan?”. Aukeratu jarraipen egokiena.

- a) Lan sobera!
- b) Lanez gain!
- c) Nahikoa lan!
- d) Lanpean nago!

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)****ERANTZUN-ORRIA**

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Ondorengo orrietako testuari buruzko 10 galdera duzu testuaren amaieran. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.



UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2007KO EKAINAREN 4a)

BOLOGNAKO ITUNA, Europako unibertsitateak bateratzeko bidean

Aldaketa garaiak Europako unibertsitateetan. XXI. mendeko beharretara egokitu nahian dihardute eta, horretarako, Bolognako Itunari gogotik ekin diote, indarrean jarri nahi dituzten berrikuntza guztiak 2010erako gertu egon daitezzen. Horrenbestez, Europako unibertsitateak aldaketa horiei aurre egiteko ari dira prestatzen, egokitzapenak bideratzeko lau urteko epea besterik ez dutelako. Euskal Herrikoak, jakina, ez dira salbuespen.

Oinarrian, hezkuntza sistema bateratua ekarriko du Bolognako Itunak: titulu akademikoek balio bera izango dute herrialde batean zein bestean eta Europako edozein unibertsitatean ikasteko erraztasunak areagotuko dira. Adibidez, ikasle batek lehenengo maila Londresen egin lezake; bigarrena, Erroman; eta hirugarrena, Bilbon.

Baina horrelakoetan gertatzen den bezala, batzuek onura ugari ikusten dizkiote Bolognako Itunari eta beste batzuek arrisku handiak. Kontrakoez diote unibertsitateak multinazionalen esku geratuko direla eta, gainera, prozesuak nolabaiteko homogeneizatzea ekarriko duela. Aldekoek, berriz, azpimarratzen dute unibertsitateak gaur egungo garaietara egokituko direla eta ikasleek nahiz irakasleek aukera gehiago izango dituztela. Gainera, Euskal Herriko unibertsitateetan bada beste ardura bat: Bolognako Itunak nola eragingo ote dion euskarari.

Kredituak Transferitzeko Sistema Europarra (ECTS)

- Kreditu bat lortzeko: 25-30 ordu lanean edo ikasten
- Ikasturteko: 60 kreditu
- Graduoko tituluak lortzeko: 180-260 kreditu bitartean
- Graduondokoa, masterra: 60-120 kreditu
- Doktoregoa: 300 kreditu

(Datuak behin-behinekoak dira)

Aldaketa nagusiak

Funtsean bi dira Bolognako Itunak ekarriko dituen aldaketak: kreditu sistema bateratua eta tituluak homologatzeko sistema. Orain arte estatu bakoitzak bere kreditu sistema zehazten zuen; 2010etik aurrera Kredituak Transferitzeko Sistema Europarra hedatuko da, ECTS delakoa. Guztira 60 kreditu izango ditu ikasturte bakoitzak eta, kreditu bat lortzeko, ikasleak 25-30 ordu bete beharko ditu ikasten eta lanean. Irakasleak, berriz, kreditu bakoitzeko 10 eskola ordu eman beharko ditu. Bi ziklo nagusi izango dira aurrerantz: gradu eta graduondoko ikasketak.

Graduko ikasketek gutxi gorabehera hiru urte iraungo dute eta horien xede nagusia ikasleei lan merkatutako prestakuntza egokia ematea izango da. Ondoren, graduondoko ikasketak izango ditugu: masterrak eta doktoregoak. Patxi Juaristi, Hezkuntza Saileko Unibertsitateetako zuzendariak azaldu digu zein izango den joera orokorra: "Ikasleek graduoko ikasketak egingo dituzte hiru urtean eta, ondoren, ia gehienek masterren bat egingo dute. Masterrek urte bateko, biko zein hiruko iraupena izango dute, eta helburuak desberdinak izango dira. Hau da, master batzuk akademikoak izango dira, beste batzuk lan mundura zuzenduak egongo dira, eta izango da ikerketa helburu duenik ere".

Unibertsitateak gizarteari zabal-zabalik

Nolanahi ere, Bolognako Ituna hori guztiori baino zerbait gehiago da. Patxi Juaristiren esanetan, orain arte ikasleen eta irakasleen artean izan diren lan harremanak errotik aldatuko dira: "Irakasleak eskola ordu gutxiago emango ditu, baina tutoretza lana handituko zaio. Ikaslea maizago joango da irakaslearen bulegora, eta irakasleak jarraipen zorrotzagoa egin beharko dio ikaslearen lanari. Era berean, ikasleak ordu gehiago emango du liburutegian, bere kontura ikasten edo lanean".

Lifelong learning kontzeptua ere gailenduko da: "Unibertsitatea tituluak ematen dituen zentro bat baino gehiago izango da. Lanean dihardutenei ere zuzenduta egongo da, eta horientzako ikastaroak antolatuko ditu". Bolognako Itunaren bitartez, joera hori areagotu eta unibertsitateek merkatuak eskatzen dituen ikastaroak eskaini beharko dituzte.

Ikasleen kezka

Ikasleek Bolognako Itunaz zer dakiten jakin nahian, Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimenak 328 inkesta egin zituen EHUko Leioako, Ibaetako eta Gasteizko campusetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Emaitzek erakutsi dutenez, inkesta bete zutenen %31k ez daki ezer prozesu honetaz, eta %38k aldaketa akademikoa dela adierazi du. EHBEn ustez, garbi dago Euskal Herriko komunitate unibertsitarioak ez duela Bolognako Itunaren berri.

Beste kezketariko bat da gaur egungo ikasketekin zer gertatuko den. Karrera batzuk desagertuko ote diren beldur dira ikasleak. Oraindik, baina, zehaztu gabe dago ikasketen mapa. Madrilen batzorde bat ari da lan horretan, eta 2007rako ikasketen mapa bukatuta izango zutela esan arren, dirudienez, prozesua atzeratu egingo da.

Itun honen nondik norakoetan sakondu nahian, unibertsiterara jo eta hainbat iritzi bildu ditugu, artikuluan emandako informazioa osatzearren. Hona hemen galde-erantzunak:



UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2007KO EKAINAREN 4a)



Xabier Etxague

EHUko Ikasleen errektoreordea

1. Zeintzuk dira Bolognako Itunaren alde onak?

Lehiakortasuna, ezagutzen transferentzia, joan-etorrietarako erraztasuna, sistemen irekitasuna... Gainera, ikerketa proiektuak areagotuko dira. Azken batean, irakaskuntza eredu berria eta aktiboagoa ekarriko du Bolognako Itunak. Gauzak horrela, erakunde eta enpresek lotura handiagoa izango dute unibertsitateek.

2. Eta alde txarrak?

Arriskuez hitz egingo nuke. Nire ustez, gehiegizko lehiakortasuna ekar dezake. Horrek titulu edo zentro batzuk bazterzea eragin dezake.

3. Enpresen zerbitzura ikusten al duzu?

Ez, itunak ez du horrelako asmorik. Europako unibertsitate sistemak lehiakorra izan behar du. Xede horrek enpresekiko harremanak areagotzea dakar eta ez mendekotasunik. Azken batean, ikasleek enpresa batean egingo dute lan, modu batera zein bestera. Hala ere, ezagutzaren erabilpen soziala bultzatu beharra dago.

4. Euskarari nola eragingo dio?

Beharrezkotzat jotzen dut bakoitzak bere izaera eta nortasunari eustea. Unibertsitateak euskara behar du, eta euskarak unibertsitatea. Euskararen zabalkundea eta iraupena, baina, gizartearen borondatearen menpe dago.

5. Unibertsitatea garestiago izango al da?

Ez da horrelakorik gertatu behar. Unibertsitateen finantzaketa politika estatuei dagokie. Bolognako Itunak ez du horren inguruan ezer zehazten. Gradu tituluetan ez da funtsezko aldaketarik izango. Masterrak, berriz, oraingoak baino merkeagoak izango dira.

6. Beharrezkoa ikusten al duzu?

Europako unibertsitate sistemari astindu bat eman behar zitzaien. XX. mendearen hasieran eta erdialdean unibertsitateek zuten distira berreskuratu beharra dago.

➔ ABANTAILAK

- Titulu batek balio bera izango du Gasteizen zein Parisen
- Ikasleen mugikortasuna: lehen ikasturtea Oslon, bigarrena Erroman eta hirugarrena Londresen egiteko aukera

➔ ARRISKUAK

- Ikasketak batzuk galtzeko aukera
- Ikasketak unean uneko lan eskaintzari lotuegiak



STEE-EILAS

Arantza Urkaregi

STEE-EILAS sindikatuko ordezkaria

1. Zeintzuk dira Bolognako Itunaren alde onak?

Bolognako Itunak aukerak ematen dizkigu. Unibertsitateak aldatu behar dira, baina gakoa hau da: norantz? Bolognak bide eman behar liguke Euskal Herriak behar duen unibertsitate ereduaren gaineko eztabaida bultzatzeko, egin beharreko aldaketak zehazteko eta unibertsitatearen nahiz gizartearen arteko harremanen inguruan hausnartzeko.

2. Eta alde txarrak?

Arriskuz beteriko prozesua dela uste dut. Horren adibidea zera da: itun hau goitik behera ezartzen ari direla, eztabaidari atea itxiz. Unibertsitario guztiok izan behar dugu aldaketaren jabe. Horretarako, eztabaida bultzatu behar da.

3. Enpresen zerbitzura ikusten al duzu?

Ezin dugu ahaztu Bolognako Ituna zein testuingurutan sortzen den: globalizazio neoliberalaren barruan, Europar Batasunean; eta bertan, lan merkaturia gero eta ezegonkorragoa da eta estatuek zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatzen dute. Gainera, graduaren eta graduondokoen arteko banaketa egiteak graduondokoen merkantilizazioa ekar lezake. Gaur egun, enpresaren diskurtsoa zabalduz doa unibertsitatean; eta ez diskurtsoa bakarrik, BBVAk EHUko Udako Ikastaroak finantzatzen ditu, Santander banketxearekin hitzarmenak sinatzen dira, EHU aurten hasiko da *El Correo* izena duen master ofiziala eskaintzen...

4. Euskarari nola eragingo dio?

Neurririk hartu ezean, euskarak unibertsitatean duen presentzia murriztu egingo da. EHU graduak bi hizkuntzetan eskainiko dira, baina zer gertatuko da graduondokoekin? Bolognako Itunaren inguruan gehien entzuten ditugun esaldiak hauek dira: lehiakorrak izan behar dugula, ikasleak erakarri behar ditugula... Beraz, argi dago bultzatu behar den hizkuntza ingelesa dela, baina euskara zertarako?

5. Unibertsitatea garestiago izango al da?

Graduondokoa ofizialak izango dira eta prezioak publikoak; Eusko Jaurlaritzak finkatuko ditu, baina zenbatekoak izango dira? Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoarekin izan duen jarrera kezkatzekoa da. Zerbitzu publikoak bultzatzea ez da Eusko Jaurlaritzaren helburua, kontrakoak baino. Ez daukat argi unibertsitate publikoa zenbateraino bultzatuko duen.

6. Beharrezkoa ikusten al duzu?

Bolognako aldaketarako aukerak eskaini ditzake. Prozesuaren arriskuei egin beharko diegu aurre, joera merkantilisten aurka eginez eta hezkuntza ondasun publiko gisa defendatuz. Baina aldaketa prozesu hori baliatu behar dugu euskal gizartearen unibertsitate ereduaren zehazteko eta unibertsitateek behar dituzten aldaketak guztion artean erabakitzeko.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

1. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik bat ez da egia:

- a) Europako unibertsitateetako hezkuntza-sistemak bateratzea da Bolognako Itunaren helburua.
- b) Europako herrialdeetako unibertsitate guztietan titulu akademiko berak egotea da Bolognako Itunaren helburua.
- c) Tituluen homologazioa ekarriko du Bolognako Itunak.
- d) Europako unibertsitate-mailako titulazioak baliokideak izatea da Bolognako Itunaren helburua.

2. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik bat ez da egia:

- a) Bolognako Itunak kreditu sistema bateratua izango du Europa osorako.
- b) Gradu eta graduondoko ikasketak (masterrak eta doktoregoak) izango dira etorkizunean.
- c) Masterrak egingo dituzte ikasle batzuek, baina izango den joera nagusiaren ondorioz, indartu egingo da doktoregoen presentzia.
- d) Hiru eratako masterrak izango ditugu.

3. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik bat ez da egia:

- a) Europar kreditu-sisteman, 60 kreditu izango dituzte ikasturte guztiek.
- b) Europar kreditu-sisteman, kreditu bakoitzeko, ordu gehiago eman behar ditu irakasleak ikasleak baino.
- c) Europar kreditu-sisteman, graduako eta graduondoko ikasketak bereiziko dira.
- d) Ikasleak lan-merkaturako prestatzea da graduako ikasketen helburu nagusia.

4. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein da egia?

- a) Unibertsitateko hezkuntza-sistema berrian, ikasle guztiek egin behar dute master bat.
- b) Unibertsitate-sistema berrian, oso litekeena da ikasle askok masterren bat egitea.
- c) Unibertsitateko hezkuntza-sistema berrian, ez da izango ikaslerik graduondoko ikasketarik egingo ez duenik.
- d) Unibertsitate-sistema berrian ikasleak lan-mundurako prestatzeko diseinatuko dira master guztiak.

5. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik bat ez da egia:

- a) *Lifelong learning* kontzeptua nagusituko omen da etorkizunean.
- b) Unibertsitateak lotura handiagoa izango omen du lan- eta merkatu-munduarekin.
- c) Nekez aldatuko omen dira irakasleen eta ikasleen arteko harremanak: orain arte bezala, eskolak eta tutoretzak eskaini beharko dituzte irakasleek.
- d) Badirudi ikasleen unibertsitateko jardunbidea aldatuko duela Bolognako Itunak.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

6. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein da egia?

- Ikasleek ez dute kezka handirik agerrarazi Bolognako Itunaren aurrean.
- Inkesta bat egin da Euskal Herriko unibertsitateetan: UPV/EHUko % 31k ez daki ezer prozesu honetaz, eta NUPeko % 38k aldaketa akademikoa dakarrela diote.
- Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimenak laguntza emango du ikasketen mapa berriaren diseinuan.
- Indarrean dauden ikasketak nola geratuko diren, ikasketa batzuk ez ote ditugun izango: horra ikasleen kezketako batzuk.

7. Xabier Etxagueren adierazpen hauetako bat egia da:

- Bolognako erreformak enpresen mende jarriko ditu unibertsitateetarako batzuk.
- Bolognako Itunaren ondorioz, areagotu egingo dira enpresen eta unibertsitateen arteko harremanak, baina aldi berean enpresekiko nolabaiteko mendekotasuna ere sortuko da.
- Unibertsitateek gehiago pentsatu beharko dute ezagutzak gizartearentzat zer onura ekar dezakeen eta horren arabera ere jokatu.
- Unibertsitate-sistemak lehiakorra izan behar du eta enpresen zerbitzura lan egin.

8. Xabier Etxagueren adierazpen hauetako bat egia da:

- Unibertsitatea garestiagoa izango da Bolognako Itunaren ondoren.
- Bolognako Itunak finantzaketaren inguruko jarraibideak ematen dizkie estatuei.
- Unibertsitate sistema eguneratu beharrean zegoela ikusten du.
- XX. mendearen hasieran, unibertsitateek berreskuratu egin zuten lehenago zuten distira.

9. Arantza Urkaregiren adierazpen hauetako bat ez da egia:

- Unibertsitateak aldatu beharra zeukan. Kontua da norantz.
- Arriskuz josita dago Bolognako Itunaren prozesua.
- Gertatu ez den eztabaida baten garrantzia aldarrikatzen du.
- Itunaren prozesua behetik gora ezarri dela salatzen du.

10. Arantza Urkaregiren adierazpen hauetako bat egia da:

- Ez da espero izatekoa graduen eta graduondokoen banaketa egiteak azken hauen merkantilizazioa ekarriko duenik.
- Globalizazio neoliberala gertatzen ari da, eta zerbitzu publikoak pribatu bihurtzen ari direla salatzen du.
- Gutxitu egingo da euskararen presentzia, areagotzeko neurriak hartu arren.
- Ingelesa da, Arantza Urkaregiren ustez, aurrerantzean bultzatu behar den hizkuntza, lehiakorrak izan behar baitugu.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUNAK

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10



UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2007KO EKAINAREN 4a)

3. ARIKETA: IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaitako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulua faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulua batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazara dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Arkitektura lanak Bilbon azken urteetan.	Katedralen eraikuntza.
Arte	Arte antzinatean.	Kolorearen erabilera artelanetan.
Biologia	Gai eta organismo transgenikoak.	Zoologia.
Ekonomia	Ekonomia soziala mundu globalizatuan.	Lan-merkatuaren prekaritatea.
Filologia	Euskararen jatorria.	Hizkuntzen irakaskuntza.
Filosofia	Aristoteles.	Etika filosofian.
Fisika	Biofisika.	Zer da fisika kuantikoa?
Geografia eta Historia	Hiri-geografia.	Gerra hotza.
Geologia	Kontinenteen jitoa.	Sismologia.
Gizarte zientziak	Demokratizazio prozesuaren hedakunde.	Genero-arazoak gaurko gizartean.
Heziketa fisikoa	Erresistentzia kirolean.	Ariketa fisikoa eta dietetika.
Informatika	Informatika eta multimedia.	Web 2.0
Informazioa	Lurreko Telebista Digitala.	Pertsuasioa publizitatean.
Kimika	Kimika eta ingurumena.	Formulazioa eta nomenklatura kimikan.
Matematika	Matematikaren didaktika.	Zer dira fraktalak?
Osasuna	Bioetika gaur.	Erizaintza prozedurak.
Pedagogia	Etengabeko ikaskuntza.	Ikasle autonomoaren garrantzia.
Psikologia	Gizarte psikologia.	Sexologia.
Teknologia	Energia nuklearraren inguruko auzia.	Fabrikazio mekanikoa.
Zuzenbidea	Nazioarteko zuzenbidea.	Zuzenbide forala.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**
**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA**
UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (1):
AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)		EZ GAI (< 32)

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)		EZ GAI (< 6)

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2007KO EKAINAREN 4a)**
UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akatsa larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: